

6. Bezeroekiko Harremanak:

- **Nola erakarriko dituzue bezero berriak, eta nola mantendu eta hazi araziko di bezero horiek?**

Lehenik eta behin, bezero ohiak mantentzeko laguntza pertsonalizatua eskainiko dugu online. Lehen aipatu bezala, gmail kontu bat egongo da eskuragarri eta bidaltzen diren mezu guztiak pertsona batek aztertu eta erantzungo ditu banan-banan. Arazoa larria bada ere, bezeroak bere mugikor zenbakia eman dezake arduradun batekin dei bat izateko.

Horrekin batera, aplikazioak zerbitzu automatizatua eskaintzen du, beraz, bezeroak ez du inongo laguntzarik behar erosketa egiteko eta dena haien kabuz egin ahal izango dute.

Bestalde, bezero berriak erakartzeko publizitate kanpaina ugari egingo ditugu; hala nola, OTAko postuetan kartelak eta iragarkiak jarri, pertsona ezagunek egindako promozioak edo Instagram bidez zozketak eginez.

Azkenik, denbora igaro ahala ekintza berritzaileak egitea espero dugu. Adibidez, gabonetan eta udan hilero ordaindu beharreko prezioa merkeago ezarri nahi dugu, garai horietan kotxearen erabilera handitzen baita. Horrekin batera, pertsona helduek ere aplikazioa erabili ahal izateko bideo tutorial bereziak sortzeko intentziora daukagu.